Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko martxoaren 10a, asteartea — 46 — Martes, a 10 de marzo de 2026



## LEINTZ-GATZAGAKO UDALA

*Leintz-Gatzagako gimnasioaren araudiaren behin betiko onarpena.*

Udalbatzak, 2025eko abenduaren 11n egindako bilkuran, Leintz-Gatzagako gimnasioaren araudiari hasierako onarpena eman zion.

Iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2025eko abenduaren 31n argitaratu zen (250 zk.).

Arauzko jendaurreko informazio epean ez da erreklamazio edo oharpenik izan. Hori dela eta, Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49 artikuluak xedatzen duenaren arabera, orain artean behin-behineko zen akordioa behin betikoa bihurtuko da.

Legearen 70.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera, onartutako ordenantzaren testu osoa argitaratzen da, zehaztuz bere edukina Leintz-Gatzagako Udalaren web orrian ere argitaratua dagoela www.leintzgatzaga.eus.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, Bilbon egoitza duena, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

*Aplikatzeko den legeria:* uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumena arautzen duena (46. artikulua).

Leintz-Gatzaga, 2026ko otsailaren 18a.—Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga, alkatea. (1145)

### GIMNASIOAREN ARAUDIA

1. *Ordutegia.*

Astelehenetik ostiralera: 6:00-22:00.

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 6:00-22:00.

2. *Tarifak.*

2.1. Urteko bazkide kuota: 100 €.

Leintz-Gatzagan erroldatuak: 100 €.

Erroldatu gabeak: 130 €.

Ikasleak edo epe luzeko (6 hilabete) langabezi egoeran daudenak, Leintz-Gatzagan erroldatuak: % 40ko deskontua urteko kuotaren gain.

Ikasleak edo epe luzeko (6 hilabete) langabezi egoeran daudenak, Leintz-Gatzagan erroldatu gabeak: % 40ko deskontua urteko kuotaren gain.

2.2. Sarbidea: gimnasio/fitness aretorako sarrera mugikorreko aplikazio bidez egingo da, giltza elektroniko fisiko bat (txartela) berariaz eskatzen duten erabiltzaileen kasuan izan ezik; kasu horretan, 15 euro kobratuko dira (giltza itzultzean itzuliko dira).

Urtero, dagokion Ordenantza Fiskalen aldaketarekin, bi tarifak aldatu ahalko dira.

## AYUNTAMIENTO DE LEINTZ-GATZAGA

*Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora del uso del gimnasio de Leintz-Gatzaga.*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 11 de diciembre de 2025 acordó inicialmente la Ordenanza reguladora del uso del gimnasio de Leintz-Gatzaga.

El anuncio fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del 31 de diciembre de 2025 (n.º 250).

Transcurrido el periodo reglamentario de exposición pública sin que se hayan presentado reclamaciones ni observaciones en virtud de lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se eleva a definitivo el acuerdo hasta ahora provisional.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la misma Ley se procede a la publicación del texto íntegro de la ordenanza, señalando que la misma se encuentra publicado también en la página web del Ayuntamiento de Leintz-Gatzaga www.leintzgatzaga.eus.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

*Legislación aplicable:* artículo 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Leintz-Gatzaga, a 18 de febrero de 2026.—La alcaldesa, Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga. (1145)

### REGLAMENTO DEL GIMNASIO

1. *Horario.*

De lunes a viernes: 6:00-22:00.

Sábados, domingos y festivos: 6:00-22:00.

2. *Tarifas.*

2.1. Cuota anual de socio: 100 €.

Empadronados en Leintz-Gatzaga: 100 €.

No empadronados: 130 €.

Estudiantes y parados de larga duración (6 meses) empadronados en Leintz-Gatzaga: descuento del 40 % sobre la cuota anual.

Estudiantes y parados de larga duración (6 meses) no empadronados en Leintz-Gatzaga: descuento del 40 % sobre la cuota anual.

2.2. Acceso: el acceso al gimnasio/sala de fitness será mediante aplicación en el móvil, excepto en aquellos usuarios que expresamente soliciten una llave electrónica física (tarjeta), en cuyo caso se cobrarán 15 euros (que se devolverán al devolver la llave).

Anualmente, mediante la modificación de las Ordenanzas Fiscales, se podrán modificar ambas tarifas.

EK\CV GAO-I-2026-01145

3. *Erabilera arauak.*

Bazkideak giltza elektronikoz sartuko dira gimnasioan. Giltza pertsonala eta transferitu ezina izango da.

Bazkideak sartzeko beti erabiliko du giltza, nahiz eta atea irekita egon edo beste bazkide batekin sartu.

Fitness gela bakarrik bazkideek erabili ahal izango dute.

Fitness gelako materiala egoki eta arduraz erabili beharko da eta dena txukun jasota utzi hurrengoa datorrenerako.

Erabilitako makinaren garbiketatxoa egingo da, eskura jarriko den materialarekin.

Bazkide ez diren ikastaroetako erabiltzaileak, monitorearekin sartu eta aterako dira gimnasioko instalazioetatik. Erabiltzaile horiek ez dute aldagelak erabiltzeko aukerarik izango, baina bai komunak.

Debekatuta dago:

— Animaliak sartzea.

— Kamiseta, arropa edo oinetako barik ibiltzea, aldageletan izan ezik.

— Jatea eta edatea, hidratatziorako edariak izan ezik.

— Debekatuta dago lokal barruan kartelak, pegatinak, etab. ipintzea.

— Ezingo zaie instalazioei, altzariei edo beste material batzuei eragin.

— Instalazioan erretzea, su egitea.

— Argazkiak atera edo grabazioak egitea.

Istripuak: Erabiltzaileak bere gain hartzen du jardueraren ondoriozko lesioen eta kalteen arriskua. Udalak ez du horren erantzukizunik hartuko.

4. *Nola egin bazkide eta nola eman baja?*

16 urtetik gorako pertsonak izan daitezke bazkide.

Bazkidetza urterokoa izango da. Ez da hainbanatuko inoiz hilabeteka.

Bazkide izateko alta:

— Izen-emate orri ofiziala bete eta Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztuko da.

— Gimnasioko giltza jasoko da Udaletxean. Lehen aldiz bazkidetza alta egiertakoan giltzaren kostua kobratuko da.

Baja egiteko:

— Batetik, baja orri ofiziala beteko da, eta bestetik, giltza itzuliko da Udaletxean.

— Azken eguna; urte bakoitzeko abenduaren 28a. Behin alta emanda eta garaiz bajarik eman ezean, automatikoki berrituko da hurrengo urterako.

Giltza galduz gero:

— Udalari berehala jakinaraziz gero, giltza indargabetu egingo da, eta galdu duenari ordainarazi egingo zaio.

— Udalari berehala jakinarazi ezean, giltza ordainarazteaz gain, 100 euroko isuna jarriko zaio, eta sei hilabetean gimnasioa erabiltzeko baimena kendu.

5. *Bazkide izatearen eskubideak.*

— Gimnasioko atea zabaltzeko giltza elektronikoa edukitzea.

— Fitness gela erabiltzea.

3. *Normas de uso.*

Los socios accederán al gimnasio mediante llave electrónica. La llave será personal e intransferible.

Los socios utilizarán la llave para entrar, aunque la puerta esté abierta o se meta otro socio.

La sala de fitness sólo podrá ser utilizada por los socios.

El material de la sala de fitness deberá ser utilizado de forma adecuada y responsable, dejando todo ordenado para el que venga posteriormente.

Se realizará una pequeña limpieza de la máquina utilizada con el material que se pondrá a disposición.

Los usuarios de los cursos que no sean socios entrarán y saldrán de las instalaciones del gimnasio con monitor. Estos usuarios no tendrán acceso a los vestuarios, pero sí a los aseos.

Se prohíbe:

— Introducción de animales.

— Andar sin camiseta, ropa o calzado, excepto en vestuarios.

— Comer y beber, excepto bebidas de hidratación.

— Se prohíbe la colocación de carteles, pegatinas etc., en el interior del local.

— No se podrán afectar instalaciones, mobiliario u otros materiales.

— Fumar en la instalación, hacer fuego.

— Fotografiar o grabar.

Accidentes: El usuario asume el riesgo de lesiones y daños derivados de la actividad que realice. El Ayuntamiento, en esos casos, no se hace responsable de los mismos.

4. *¿Cómo hacerse socio y darse de baja?*

Podrán ser socios las personas mayores de 16 años.

La suscripción será anual, sin que en ningún caso se pueda prorratear por meses.

Alta como socio/a:

— Se deberá rellenar la hoja de inscripción oficial y presentarlo en el Registro de Entrada del Ayuntamiento.

— La llave del gimnasio se recogerá en el Ayuntamiento. Al realizar el alta de socio por primera vez, se cobrará el coste de la llave.

Baja:

— Por un lado, se rellenará la hoja oficial de baja y, por otro, se devolverá la llave en el Ayuntamiento, presentando el impreso de baja.

— Último día: el 28 de diciembre de cada año. Una vez dado de alta, y de no darse de baja a tiempo, se renovará automáticamente para el año siguiente.

En caso de pérdida de llave:

— En caso de comunicación inmediata al Ayuntamiento, la llave se anulará y conllevará el abono a quien lo haya perdido.

— Si no se comunica inmediatamente al Ayuntamiento, además de tener que pagar la llave, se le impondrá una multa de 100 euros y se le retirará el permiso de uso del gimnasio durante seis meses.

5. *Derechos de la condición de socio.*

— Disponer de llave electrónica para abrir la puerta del gimnasio.

— Utilización de la sala de fitness.

EK\CV GAO-I-2026-01145

6. *Bazkidearen betebeharrak.*

* Gimnasioaren araudia eta udaletik eman litezkeen beste jarraibide batzuk betetzea.

* Baliabideen eta horniduren erabilera arduratsua:

— Ur zein argindarraren zentzuzko erabilera eta denbora zaintzea.

— Gune komunetako garbitasuna zaintzea (paperontziak, komunak...).

* Giltzaren erabilera zorrotza egitea eta arazoren bat izanez gero (ez dabilela, galtzea...) Udalari 24 orduko epean jakinaraztea (asteburua bada, lehen lan egunean).

* Udalari jakinaraztea, instalazio, zerbitzu edo ekipamenduetan atzemandako matxura, anomalía eta akatsak. Erabiltzaileak ez du egingo konponketarik edo makinariaren manipulaziorik.

7. *Antolatutako kurtsoak.*

— Ezarritako ordutegiaren barruan, Udalak gimnasioaren/fitness-gelaren erabilera mugatu ahal izango du, astean gehienez 4 orduz, ikastaroetara bideratzeko.

— Ikastaro horiek online nahiz offline izan daitezke (monitore/dinamizatzaile batekin edo Interneteko plataformen bidez).

— Kurtso gisa har daitezen, gutxienez 3 pertsonek parte hartu beharko dute ikastaro horietan, eta ezin izango da inoiz 8 pertsona baino gehiagoko taldea izan, espazioa mugatua delako.

— Kurtsoen kostua eskatzaileek ordainduko dute (bai particular talde bat izanik, baita elkarte bat izanik ere).

— Eskatzaileak particular talde bat badira, interesatu guztiak gimnasio/fitness aretoko abonatuak izan beharko dute.

— Kurtsoa Leintz-Gatzagako elkarte batek antolatuz gero, elkarteak arduradun bat izendatuko du, eta fitness aretora sarrera esklusiboa edukiko du adostutako egun eta orduan, eta bertan parte hartu ahalko dute bai abonatuek eta ez abonatuek.

8. *Arau-hausteak eta zehapen araubidea.*

Araudi honen ondorioetarako, arau-hausteak arinak, larriak, eta oso larriak izan daitezke:

A. Arau-hauste arinak.

— Araudiari eta Udalaren jarraibide-aginduei jaramonik ez egitea.

— Materiala, makinaria eta instalazioak gaizki erabiltzea edo dagokion xederako ez erabiltzea.

— Kalteak eragitea instalazioetan edo materialetan, kalte horiek konpontzea 100 euro baino gutxiago kostatzen bada.

B. Arau-hauste larriak.

— Instalazioan edo sarbidean desordena publikoak eragitea, oso larritzat hartu ezin direnak.

— Gimnasioko materiala eraikinetik ateratzea Udalaren baimen barik.

— Kalteak eragitea instalazioetan edo materialetan, kalte horiek konpontzen 101 euro baino gehiago, baina 1.000 euro baino gutxiago kostatzen bada.

— 2 urteko epean bi hutsegite arin egitea.

C. Arau-hauste oso larriak.

— Kalteak eragitea instalazioetan edo materialetan, kalte horiek konpontzea 1.001 euro baino gehiago kostatzen bada.

— Beste erabiltzaileekiko pertsonen duintasunaren aurkako erasoak (arraza, kultura-gizarte-sexu-arrazoiengatik edo beste edozein mota bateko diskriminazioa).

6. *Obligaciones del socio.*

* Cumplir la normativa del gimnasio y otras instrucciones que se puedan dar desde el Ayuntamiento.

* Uso responsable de los recursos y suministros:

— Cuidar el uso racional y el tiempo de agua y de la electricidad.

— Mantener la limpieza de las zonas comunes (papeleras, aseos...).

* Uso responsable de la llave y en caso de problemas (no funcionamiento, pérdida...), se deberá comunicar al Ayuntamiento en el plazo de 24 horas (si es fin de semana, el primer día hábil).

* Comunicar al Ayuntamiento las averías, anomalías y deficiencias detectadas en las instalaciones, servicios o equipamientos. El usuario no realizará reparaciones ni manipulaciones de maquinaria.

7. *Cursos organizados.*

— Dentro del horario establecido, el Ayuntamiento podrá restringir el uso del gimnasio/sala de fitness, como máximo 4 horas semanales, para destinarlos a cursos.

— Estos cursos podrán ser tanto online como offline (con un monitor/dinamizador o mediante plataformas de internet).

— Para que tengan la consideración de curso, en los mismos deberán participar un mínimo de 3 personas, y nunca podrá ser un grupo mayor de 8 personas, por la limitación de espacio.

— El coste de los cursos será abonado por los solicitantes de los mismos (bien siendo un grupo de particulares o una asociación).

— En caso de que los solicitantes sean un grupo de particulares, todos los interesados deberán ser abonados del gimnasio/sala de fitness.

— En caso de que el curso se organice mediante una asociación de Leintz-Gatzaga, la asociación designará un responsable que tenga acceso exclusivo a la sala de fitness para el día y hora pactados, y en el mismo podrán participar tanto abonados como no abonados.

8. *Infracciones y régimen sancionador.*

A los efectos de este Reglamento, las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves:

A. Infracciones leves.

— Desatender la normativa y las instrucciones del Ayuntamiento.

— El mal uso o no utilización del material, maquinaria e instalaciones para su destino.

— Causar daños en las instalaciones o materiales cuya reparación sea inferior a 100 euros.

B. Infracciones graves.

— Causar desórdenes públicos en la instalación o en el acceso que no puedan ser calificados de muy graves.

— Sacar el material propio del gimnasio del edificio sin autorización municipal.

— Causar daños en las instalaciones o materiales cuya reparación sea superior a 101 euros e inferior a 1.000 euros.

— La comisión de dos faltas leves en el plazo de 2 años.

C. Infracciones muy graves.

— Causar daños en las instalaciones o materiales cuya reparación exceda de 1.001 euros.

— Los ataques a la dignidad de las personas usuarias hacia otras personas usuarias (por motivos raciales, culturales, sociales, sexuales o cualquier otro tipo de discriminación).

EK\CV GAO-I-2026-01145

— Jarrera matxistak edota diskriminatzaileak edukitzea beste erabiltzaileekin.

— 2 urteko epean bi hutsegite larri egitea.

Zigorrak:

* Arau-hauste arinak: idatzizko ohartarazpenarekin:

— Instalazioak erabiltzeko debekua 6 hilabetez.

— 300 euroko isuna.

* Arau-hauste larriak: idatzizko ohartarazpenarekin:

— Instalazioak erabiltzeko debekua 12 hilabetez.

— 600 euroko isuna.

* Arau-hauste oso larriak: idatzizko ohartarazpenarekin:

— Instalazioak erabiltzeko debekua 12 hilabete eta egun batetik 3 urte arte.

— 1.000 euroko isuna, gehi egindako kaltearen kostua.

Ezarri beharreko zehapenak edo zigorrak mailakatzeko, arauhaustea eragin duen egitatearen larritasunarekiko behar bezalako egokitasuna eta proportzionaltasuna gorde beharko dira. Halaber, kontuan hartu beharko dira, batetik, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen araututako inguruabar aringarri eta astungarriak eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoak (edo xedapen horiek aldatzen dituzten araudiek ezarritakoak), eta ezarri beharreko isunak indarrean dagoen araudiaren arabera, dagokion espedientea formalizatu ondoren soilik ezarri ahalko dira.

Prozedura hasi ondoren, ebazteko eskumena duen administrazio-organoak, ofizioz edo alderdi-eskariz edo arrazoituta, bidezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko, besteak beste, instalaziotik kanporatzea, zerbitzuaren normaltasuna aldatzeko arriskua dagoen kasuetan.

Arau-hauste oso larriak hiru urte igarota preskribituko dira, larriak bi urte igarota eta arinak sei hilabete igarota.

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribituko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan.

— Mantener actitudes machistas y/o discriminatorias con otras personas usuarias.

— La comisión de dos faltas graves en el plazo de 2 años.

Sanciones:

* Infracciones leves: con apercibimiento por escrito:

— Prohibición de uso de las instalaciones durante 6 meses.

— Multa de 300 euros.

* Infracciones graves: con apercibimiento por escrito:

— Prohibición de uso de las instalaciones durante 12 meses.

— Multa de 600 euros.

* Infracciones muy graves: con apercibimiento por escrito:

— Prohibición de uso de las instalaciones desde 12 meses y un día hasta 3 años.

— Multa de 1.000 euros más el coste del daño causado, en su caso.

Para la graduación de las sanciones a imponer se deberá guardar la debida adecuación y proporcionalidad a la gravedad del hecho constitutivo de la infracción. Asimismo, deberán tenerse en cuenta las circunstancias atenuantes y agravantes reguladas por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, así como lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (o en la normativa que las modifique), y las multas a imponer, conforme a la normativa vigente, sólo podrán imponerse una vez formalizado el correspondiente expediente.

Iniciado el procedimiento, el órgano administrativo competente para resolver, de oficio o a instancia de parte o de forma motivada, podrá adoptar las medidas provisionales que estime oportunas para asegurar la eficacia de la resolución, entre ellas la expulsión de la instalación en los casos en que exista riesgo de alteración de la normalidad del servicio.

Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves a los seis meses.

Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por infracciones graves a los dos años y las impuestas por infracciones leves al año.

EK\CV GAO-I-2026-01145